

madaren* eta poliziaren biolentzia korsikar aberriaren aurka, autonomisten aurka. Korsikan, aurrerantzean ez da deus lehen bezala izanen». Frantses Estatuaren batasuna ukitzen* deneko, bere senetik* aterata dabil Poniatowski hau. Frantziaren batasunaren eta zibilizazioaren kontra omen zihoan ekintza hori, esan du Poniatowski. Hitz biribilak bezain hutsak dira horik, ez beste ezer.

Le Monde egunkariko editorialak finago aztertu du arazoa. Eskualde* bezala, bere identitate bila dabil Korsika. Identitate bila, Parisek lehenbizi eratu eta gero zanpatu egin duen Frantzia batetan. Estatuaren eta eskualdeen artean burruka bat ba dagoela gaur European, arazo ageria da. (Joan Mari Torrealday)

Uda Frantzian

Oporrak iristen* direneko, automobila hartu eta bere bizigirotik irten: beste pentsamenturik ez omen du frantsesak. Hori diote gizarte aztertzaileek. Asteak «week-end» delakoarekin hartzen du gailurra; urte osoak, udako bakantzekin. Egun horietarako lan egiten dela dirudi.

Baina lana eta oporra, beste leku askotan bezala, Frantzian ere ez daude integraturik. Guretzat, gaurko gizarte kondiziotan, oporrak lan modua jartzen du hauzitan. Oporretan lana ahantzi egin nahi izaten da. Zergatik? Lana eta lan kondizioak ez daudelako behar bezala gizonari egokituak. Gizona jartzen da gaur lanaren kondiziotara. Alderantziz behar luke izan. Lana behar bezala gizonari egokitu arte, oporrak ihesbide izango dira. Opio, beraz. Gauza bera esan behar da, oporrak derrigor hiritik kanpora hartzeaz ere. Hiria, biziezina bihurtu dugu. Hilabete ba-

tez bakea eta aire garbia izateko, Pariseko bizimodu mugitua eta zatatsua eta hango aire zikina utzi egin behar. Kapitalismoaren bultzadak ez du barkatzen.

Publizitateak ahal duen guztia egiten du hain zuzen bakan-tzetan, geure eguneroko bizitza ahantz dezagun. Espainian baino ere argiago da hori Frantzian. Baina joko hau ez da inozentea. Hori, horixe komeni zaio Gobernuari: problemak oro* ahantz ditzala jendeak. Demobilizazio ikaragarria dakarte opor egunek, ezaguna denez. Nahiz eta problemak bizirik egon, norberari hurbildik ez dagozkionean, ahantzi egin ohi ditu jendeak, kontzientziartzatza ez baita sozio kondizionamenduetatik aparte gertatzen. Informabideek ere garrantzi ezin handiagoa dute hortan.

Bekantzetan ba dirudi ez dela deus gertatzen Frantzian. Ez holakorik! Politik joko klasikoa erdi geldirik egon ohi dela, egia da. Egia da ere, lantegiek geldiro geldiro lan egiten dutela. Ezin uka, arazoak eta hauziak apeldu egin ohi direla. Dena den, jendea ez dago lotan. Lo egin ezinik bai, ostera*! Sokatira eta tentsio gaitzak* daude lanaren munduan. Har dezagun, azterbidetzat, uztaila* bera. Ba dirudi ez dela deus jazo.* Ehun mila langile egon omen dira greban: azken hamabi urte haue-tako gehien. Ia departamendu guztietan izan da zerbait, 194 lantegitan. 42 lantegitan, gainera, grebariek okupatu egin dute lantegia.

Ekonomi alor batzu* beste batzu baino irakinagotan daude, hala nola, metalurgia, jantzegiak, larruarena, textiltzinta, in-primategiak, konstruzioa.

Zergatik burrukarik gehienak? Hain zuzen, lanaren segu-rantza defendatzeko, erosahala* gordetzeko, lan kondizioak hobetzeko, sindikal* askatasuna babesteko...

Jendeak ahantzi egin nahi izan ditu problemak, baina hauek zutik eta bizi bizirik diraute. (Joanes Lekerika)

Herriarekin. Herriarentzat.

Lan Kide Aurrezkia.



LAN KIDE AURREZKIA

CAJA LABORAL POPULAR